



EBAZPENA, 2016ko abenduarenaren 23koa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2016-2017 ikasturtean oinarrizko konpetentziien ebaluazio diagnostikoaren prozesuan aurreikusten diren probak gauzatzeko jarraibideak ematen dituena.

2008ko abenduaren 2ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbuurenak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen du, eta haren xedea, gauzatze esparria, helburua, edukia, ebaluazio prozesua eta hobekuntza prozesua definitzen ditu. Ebaluazio diagnostikoko probak funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan gauzatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 54. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Ebaluazio diagnostikoak izaera hezgarria eta orientagarria du ikastetxeentzat eta informatiboa familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat. Bere helburua, datu zehatz eta fidagarriean oinarriturik, irakas-praktikaren inguruko gogoeta erraztea eta ikastetxearen hezkuntza-plangintzari buruzko ondorengo erabakiak hartzea erraztea da, eta, baita ere, emaitza hobeak lortzearen alde lan egitea ikastetxeko hobekuntza-plana gauzatzearren bidez.

Kontuan izan behar da ebaluazio diagnostikoko probak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiiek gauzatzeak, lortzen diren emaitzetan zorroztasun maila handia bermatu ahal izateko, prozesua zehatza eta kontrolatua izatea eskatzen duela.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikoaren prozesua arautzen duen 2008ko abenduaren 2ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbuurenak, 6.1 artikuluan xedatzen du ikasturte bakoitzean ebaluazio-probak gauzatzeko aldi zehatza eta proben iraupena Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpen baten bidez ezarriko direla. Horrez gain, aipatutako aginduaren azken xedapenetako lehenengoak eskumena ematen dio Hezkuntza sailburuordeari agindu honetan ezarritakoa garatzeko eta gauzatzeko beharrekoak diren xedapenak eman ditzan.

Bidezko da, beraz, 2016-2017 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrizko konpetentziien ebaluazio diagnostikoko probak gauzatzeko jarraibideak finkatzea. Horrenbestez,

XEDATZEN DUT

1. 2016-2017 oraingo ikasturtean honako oinarrizko konpetentzia hauek ebaluatuko dira:

a) Ikasle guzientzako konpetentzia komunak:

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.



- Matematikarako konpetentzia.
 - Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
 - Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia.
- b) Proba berean, etapa bakoitzeko ikasle-lagin zabal batek idazmeneko liburuxka bat bete beharko du bakoitzari dagokion hizkuntzan (euskarra, gaztelania edo ingelesa), Autonomia Erkidegoaren mailan trebetasun horretako emaitzak eskuratzeko eta ikastetxeei ereduak eskaini ahal izateko. Lagin izaerako proba hori 6.c artikuluan azaltzen den moduan gauzatuko da.
- c) Bukatzeko, ikasleek testuinguruko galde-sorta bat bete beharko dute, norberaren eta ikastetxearen ezaugarriei buruzko galderak eta baita euskal hezkuntza-sistemarako beste interes alderdi batzuk ere.
2. Ebaluazio-probak gauzatzeko aldia honako hau izango da:
- a) Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak: 2017ko martxoaren 6tik martxoaren 17ra bitartean.
 - b) DBHko 2. mailako ikasleak: 2017ko martxoaren 20tik martxoaren 31ra bitartean.
 - c) Probetan zehar izan daitezkeen gertaera bereziak edo ezustekoak konpondu ahal izateko, aurreko puntuetaen ebaluazio-probak gauzatzeko finkatutako aldiak zenbait egunez luzatu ahal izango dira.
3. Hezkuntza Sailak lehiaketa publiko baten bidez kanpoko enpresa bati esleituko dizkio ikastetxe eta ikastalde guztietako kanpoko proben aplikazioari dagozkien lanak. Esleipendun enpresaren lanak ebaluazio diagnostikorako definitu diren protokolo eta irizpide estandarizatu guztiak hertsiki bete behar ditu. Lan hori ISEI-IVEIk zuzenean ikuskatuko du.
4. Probak gauzatzeko aldian, bai ISEI-IVEIk baita esleipendun enpresak ere etengabeko arreta zerbitzu bat izango dute ikastetxeentzako, probak gauzatzeko prozesuan sor daitezkeen arazo guztiak arin eta egoki konpon daitezen bermatu ahal izateko.
5. Ebaluazio-probetan parte hartzen duten ikastetxez kanpoko pertsona guztiekin behar bezala identifikaturik egon behar dute. Goian aipatutako Aginduaren 6.3 artikuluak xedatzen duen legez, Zuzendaritza taldearen betebeharra da, ebaluazio diagnostikoaren Koordinazio Batzordearen bidez, probak egoki gauzatu ahal izateko behar diren antolamenduaren aldetiko alderdi guztietan laguntzea eta baliabideak ematea.
6. Ebaluazio diagnostikoko probak gauzatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
- a) Probak hurrenez hurrengo bi irakastegunetan gauzatuko dira, goizeko saioetan. Bi egun horietan, ebaluazioan parte hartzen duten ikasleen ordutegia ebaluazioaren antolamenduaren aldetiko beharren arabera egokitutako behar da. Salbuespen gisa, probaren bat arratsaldeko saioan egin ahal izango da.
 - b) Proben egunetako bakoitzean, ikasleek 1. artikuluan finkatzen diren konpetentziak errendimendu-probak gauzatuko dituzte; proben artean atsedenaldi



bat izango dute. Bi hizkuntza ofizialako –euskarra eta gaztelania– hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagozkion probak egun ezberdinan gauzatuko dira.

c) Ebaluazio diagnostikoko kanpoko probaren garaia baino lehen, ikasle-lagin zabal batek idazmeneko proba bat egin beharko du hiru hizkuntzetako batean (euskarra, gaztelania edo ingelesa), honako prozedura hau jarraituz:

- Hiru hizkuntzetako idazmeneko liburuxkak probaren aplikatzaileak ikastetxea bisitatzen duen egunean eramango dira ikastetxera.
- Idazmeneko probarako lagineko ikasleen ikastetxeek antolatuko dute ikasleek egokitu zaien idazmeneko proba egiteko behar den guztsia. Idazmeneko proba kanpoko errendimendu probarako finkatutako egunetan baino lehenago gauzatu beharko da ezinbestean.
- Kanpoko errendimendu probaren lehen eguna bukatzean, ikastetxeko zuzendariak edo bere ordezkariak lagin kontrolatuko ikasleek betetako idazmeneko liburuxkak aplikatzaileari eman beharko dizkio.
- Lagin kontrolatuko ikastetxeei aldez aurretik jakinarazi behar zaie lagineko partaideak direla, eta, horrez gain, idazmeneko proba gauzatzeko jarraibide zehatzak eman behar zaizkie. Ondoren, ISEI-IVEIk ikasleek idazmeneko proban lortutako emaitzei buruzko berariazko txosten bat bidaliko die.
- Lagin kontrolatuan ez dauden gainerako ikastetxe eta ikastaldeek idazmeneko probak 10. artikuluan finkatzen diren jarraibideen arabera gauzatu beharko dituzte.

d) Ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-etapa bereko ikasle guztiekin aldi berean egin behar dituzte probak, egun berean eta probetarako jarraibide eta irizpide berberekin, ikasle guztiekin probak baldintza berberetan egiten dituztela bermatzeko.

e) Ikasleek ebaluazio-gelan egon behar dute ebaluazio-saio bakoitzerako aurreikusitako denbora bukatu arte. Zuzendaritzaren betebeharra da, edo zuzendaritza taldeak izendatutako pertsonarena, ikasleek ebaluazio-probetan portaera egokia dutela zaintzea, eta, baita ere, bi egunetan errendimendu-proben arteko atsedenaldian ikasleak zaintzea.

f) Zuzendaritza taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 5.3 artikuluan definitutako Koordinazio Batzordearen bidez, behar bezalako antolamendu-neurriak hartuko ditu ikastetxeko ikasleek probak ahalik eta baldintzarik egokienetan egin ditzaten eta beren errendimenduari eragin diezaioketen etenak eta arreta galtzeak eragozteko.

g) Zuzendaritza talde bakoitzak aldez aurretik jakingo du, adierazpen ofizial baten bidez, ebaluazio-probak haren ikastetxean zein egunetan gauzatuko diren. Ebaluazio-probak, arrazoi justifikatuengatik, proposatutako data horietan egitea ezinezkoa balitz, ikastetxeko zuzendariak arazoa jakinarazi egin beharko du, datak aldatu ahal izateko.

h) Ebaluazio-proben aplikatzaileak ebaluazioan erabiltzen diren material eta tresna guztiak zaintzeko ardura izango du, eta baita materialen isilpekotasuna bermatzeko ardura ere. Horretarako materialak ebaluazio-prozesuaren aplikaziotik kanpoko pertsonek ezagutzea edo erabiltea galarazi beharko du.

i) Ebaluazio-probak gauzatzen diren bitartean, ikastalde bakoitzeko ebaluazio-gelan bi pertsona bakarrik egon ahalko dira: proba aplikatzeko arduraduna eta ikastetxeko zuzendariak ikasleen portaera zaintzeko eta edozein ezusteko konpontzeko



izendatutako pertsona. Era berean, une jakinetan eta aurretiaz hautatako ikasgeletan, ebaluazio prozesua kontrolatzeko ardura duen pertsona bat ere (Hezkuntzako Ikuskaritza, ISEI-IVEI edo enpresa arduraduna) egon daiteke.

- j) Ikastalde batean NCE duen eta beste pertsona baten (zeinu hizkuntzako interpretea edo irakaslea, hezkuntza-laguntzako espezialista, IBTko teknikaria...) lagunza behar duen ikaslerik baldin badago, pertsona laguntzaile horrek baimena izango du probak gauzatzen diren bitartean ikasgelan egoteko ikastetxeak izendatutako irakaslearekin batera. Pertsona laguntzaileak isilpekotasun-konpromiso bat sinatu beharko du bere jardunean ezagutu ditzakeen proben edukiari buruz.
- k) Ikastetxeko zuzendaritza taldeak ikastetxearen zenbait oinarrizko ezaugarriaren gaineko testuinguruzko galdera-sorta bat bete behar du. Datu horiek ISEI-IVEIk erabiliko ditu emaitzak interpretatzeko.

7.- 1.a puntuaren aipatutako oinarrizko konpetentziako probak eta galdera-sorta ordenagailu bidez gauzatuko dira. Horretarako ikastetxeko Eskola 2.0 ekipamendua erabiliko da, honako irizpide hauen arabera:

- a) Ebaluazio diagnostikoa gauzatzen deneko egunetan ikastetxeko Eskola 2.0 ekipamendu guzia ebaluazioaren beharrak betetzeko erabiliko da. Horrela, ebaluazio saioetan funtzionamendu, mantentze edota bateria arazoak sortzen badira, berehala ordenagailuak ordeztu ahal izateko.
- b) Ebaluazio probak egiteko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ikastetxeko 5. eta 6. mailetarako esleitutako Eskola 2.0 ekipamendua erabiliko dute.
- c) DBHko 2. mailako ikasleek aurtengo ikasturtean irakasmila horretarako esleitutako Eskola 2.0 ekipamendua erabiliko dute. Ebaluazio egunetan ikastetxeko DBHko 1. mailarako esleitutako Eskola 2.0 ekipamendua ere erabiltzeko prest egon behar da.
- d) Ikastetxeak ikasleek erabiltzen duten bezalako ordenagailu eramangarri bat emango dio kanpoko aplikatzaile bakoitzari ebaluazio probetan zehar erabiltzeko; hau da, ikastetxeen ebaluazio diagnostikoan parte hartzen duen ikastalde bakoitzeko ordenagailu bat behar izango da. Ordenagailu eramangarri horiek probetarako euskarri tekniko bezala erabiliko dira eta ez dira inolaz ere ikastetxetik atera behar.
- e) Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako probetan, entzumeneko proba entzunaldi batzuetan oinarritzen da. Ikastetxeak bermatu behar du, beraz, ikasle bakoitzaren aurikular pertsonala ordenagailuan konekta daitekeela eta egoki funtzionatzen duela, entzumeneko probak egiten diren bi egunetan erabili behar baitituzte. Aurikularren funtzionamendua aldez aurretik egiaztatu behar da. Horren helburua arestian aipatutako entzunaldiak ikasle guztiak era autonomoan eta higiene-baldintzak bermaturik entzun ahal izatea da.
- f) Ebaluazio diagnostikoko probak gauzatu baino lehen, ikastetxeak Eskola 2.0 ekipamenduaren egoera aztertuko du. Hori egiten laguntzeko, ISEI-IVEIk, ordenagailuek zer nolako ezaugarri teknikoak eta nolako oinarrizko konfigurazioa izan behar duten finkatuko du, eta protokolo bat idatziko du ordenagailuak prestatzerakoan sor daitezkeen arazo teknikoak konpondu ahal izateko. Horrekin batera, ebaluazio-probak gauzatzeko espazioek zer nolako baldintzak bete behar



dituzten azalduko da. Jarraibide horiek ikastetxeek datuak sartzeko erabili behar duten web gunean jarriko ditu eskuragarri ISEI-IVEIk, ekipamendu informatikoari buruzko berariazko atal batean. Azkenik, Hezkuntza Sailaren mantentze-enpresak “CAU Mantenua”k ere lagunduko du Ikastetxe publikoetako ordenagailuak aztertzeko aldian antzeman daitezkeen arazo teknikoak konpontzen.

- g) Kanpoko aplikatzaleak ikastetxea bisitatzen duen egunean, beste zeregin batzuen artean, ebaluazio probetan erabiliko den ekipamendu informatikoa aztertuko du eta behar diren eskakizun teknikoak betetzen dituen egiaztatuko du.

8.- Ebaluazio-probak gauzatu baino egun batzuk lehenago, ebaluazioan parte hartzen duen ikastalde bakoitzeko tutoreak ebaluazio-proben berri (helburua, ezaugarriak eta garrantzia) eman behar die ikasleei. ISEI-IVEIk, probak gauzatzeko aldia baino aste batzuk lehenago, probak gauzatzeko jarraibide orokorrak bidaliko ditu ikastetxe guztieta. Horrekin batera zenbait material ere bidaliko ditu, ikasleak aldez aurretik proben formatuarekin trebatu ahal izateko. Icasleei ez zaizkie jakinaraziko probetarako data zehatzak.

9.- Hezkuntzako Ikuskaritzak probak gauzatzeko prozesuaren kontrola eramango du Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikastaldeen lagin batean, ebaluaziorako finkatu diren irizpide estandarizatuak betetzen direla egiazatzeko. Lan horren ondorio gisa, Hezkuntzako Ikuskaritzak laburpen txosten bat idatziko du, probak gauzatzeko prozesuan antzeman diren arazoak, prozesuaren balorazio orokorra eta egoki iruditzen zaizkion hobekuntzarako proposamenak jasotzen dituena. Txostena Hezkuntza sailburuordetzara eta ISEI-IVEIra helaraziko du.

10.- Aurreko artikuluetan azaldu diren kanpoko ebaluazio probez gain, ikastetxe guztiekin euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko idazmeneko probak aplikatu beharko dituzte, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan. Ikastetxe barneko eta derrigorrezko probak izango dira, kanpoko ebaluazioaren osagarria, eta haren xedea ebaluazio diagnostikoa osatzea da eta ikastetxea haren garapenean implikatzea. Prozesua gauzatzeko irizpideak honako hauek dira:

- a) Probak ISEI-IVEIk emango dizkie ikastetxeen, jarraibide zehatzekin batera, probak ahalik eta modurik estandarizatuenean gauzatzen eta zuzentzen direla bermatzeko. Idazmeneko probak zuzentzeko eta emaitzak interpretatzeko lagungarriak izan daitezkeen ereduak ere emango ditu.
- b) Idazmeneko proba horiek ebaluazio diagnostikoaren gainontzeko kanpoko proben ondoren gauzatuko dira, maiatzaren bigarren hamabostalditik ekainaren lehenengo hamabostaldira bitartean. Probak ikastetxeko irakasleek gauzatu eta zuzendu behar dituzte.
- c) Ebaluazio diagnostikorako ikastetxeko Koordinazio Batzordeak izango du prozesua planifikatzeko eta koordinatzeko ardura, 2008ko abenduaren 2ko aginduaren 5.4 artikuluan xedatzen den bezala. Prozesuan izango dituen berariazko betebeharrok honako hauek izango dira:
 - Ikastetxearen hezkuntza planifikazioa kontuan izanik, idazmeneko proba horiek gauzatzeko egokien iruditzen zaizkion datak finkatzea, betiere 10.b puntuaren aipatutako aldiaren barruan.



- Lan horretan implikaturik dauden ikastetxeko irakasleen koordinazioa sustatzea, probak egoki gauzatzeko beharrezkoak diren ardurak eta lanak haien artean banaturik.
 - Beharrezkotzat jotzen duenean, zonako Berritzegunearen lagunza eta aholkua eskatzea.
 - Ikastetxeko emaitza orokorrak aztertzea eta informazio hori irakasleei eta hezkuntza komunitate osoari jakinaraztea.
 - Hala behar denean, ikastetxeko Hobekuntzarako Esku Hartze Planean idazmena hobetzeko neurriak sustatzea.
- d) Hezkuntzako Ikuskaritzak gainbegiratuko du betebehar horiek betetzen direla eta ebaluazio diagnostikoaren atal hori gauzatzen dela.

11.- Mintzamena ere bada hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimensio bat ikasten-irakasten diren hiru hizkuntzetan. Hala ere, mintzamena ebaluatzenko proben konplexutasunagatik eta ikastetxetik kanpoko aztertzaileekin gauzatzearen eskakizun ekonomikoagatik, mintzameneko probak egitea borondatezkoa izango da eta ikastetxeen esku geratuko da egitea ala ez egitea. Proba horiek irizpide hauen arabera gauzatuko dira:

- a) Bere garaian, ISEI-IVEIk, Berritzegune Nagusiarekin batera, hizkuntza bakoitzeko eta etapa bakoitzeko mintzameneko proben eredu-multzo bat eman zuen eta, baita ere, probak gauzatzeko protokoloak eta jarraibideak, probak zuzentzeko irizpideak eta tresnak, eta ikastetxeen mintzamena lantzeko orientabide orokorrak.
- b) Mintzameneko probak egitea borondatezkoa izango da, eta euskara, gaztelania edo ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren dimensio hori ebaluatzenko interesa duten ikastetxeek gauzatuko dituzte probak.
- c) Mintzameneko probak egin nahi dituzten ikastetxeek, oraindik horretarako materialik eskuratu ez badute, zonako Berritzegunean eskatu beharko dute, eta, baita ere, prozesu osoa garatu ahal izateko bere lagunza eta aholkularitza.

12.- Kanpoko probak zuzendu ondoren eta ISEI-IVEIk behar diren analisiak egin ondoren, ikastetxeko txostena eta ebaluazioan parte hartu duen ikasle bakoitzaren familiarentzako txostenetako bidaliko zaizkie zuzendaritza taldeei. Banakako txostenak ikasleak euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, Matematikarako konpetentzian eta Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzian izan duen errendimenduari buruzko informazioa jasoko du. Txosten horiek datorren ikasturteko lehen hiruhilekoan bidali behar dira, eta bidaltzeko kontuan izan behar dira, alde batetik, datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoa, eta bestetik, 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan zehazten diren berme guztiak, informazioa eskuratzeari, erabiltzeari eta tratatzeari buruzkoak. Nolanahi ere, ISEI-IVEIk emaitzen aurrerapenarekin osatutako behin-behineko txostenetako bidaliko die ikastetxe guztiei ikasturte honen amaieran.

13.- 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 8.2 artikuluak xedatzen duen bezala, banakako emaitzak familia bakoitzari emateko ardura zuzendaritza taldearena da.

14.- Emaitzak jaso ondoren, ikastetxe bakoitzak bere hobekuntza prozesua aurrera eramaten jarraitu behar du, 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren 8. artikuluan zehazten den



bezala. Hobekuntza prozesu horretan, 2015eko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, aurreko ebaluazio diagnostikoetan lortutako emaitzak ere kontuan izan behar dira, eta, bai eta ere, ikastetxeko aurreko hobekuntza planetan definitutako eta adostutako ekintza-proposamenak eta Hezkuntza Sailak orokorki finkatutako hobekuntza-helburuak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 23a

Hezkuntza sailburuordea
Arantza Aurrekoetxea Bilbao



RESOLUCIÓN de 23 de diciembre de 2016, de la Viceconsejera de Educación, por la que se dictan instrucciones sobre la realización de las pruebas previstas en el proceso de evaluación de diagnóstico de las competencias básicas, durante el curso 2016/2017, en los centros educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Orden de 2 de diciembre de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de evaluación de diagnóstico en los centros educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, define el objeto, el ámbito de aplicación, la finalidad, el contenido, el proceso de evaluación y el proceso de mejora que forman parte de la evaluación de diagnóstico. Las pruebas de la evaluación de diagnóstico se aplicarán en todos los centros sostenidos con fondos públicos, según lo establecido en el artículo 54 del Decreto 236/2015, de 22 de diciembre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La evaluación de diagnóstico tiene un carácter formativo y orientador para los centros e informativo para las familias y para el conjunto de la comunidad educativa. A partir de datos rigurosos y fiables, pretende facilitar la reflexión sobre la práctica educativa y la posterior toma de decisiones en torno a la planificación educativa del centro y contribuir a la mejora de los resultados mediante la aplicación del correspondiente Plan de intervención para la mejora.

La aplicación generalizada de las pruebas de diagnóstico al alumnado de cuarto curso de Educación Primaria y de segundo curso de Educación Secundaria Obligatoria exige un procedimiento de aplicación preciso y controlado que permita garantizar un alto grado de rigor en los resultados que se obtengan.

En este sentido, el artículo 6.1 de la Orden de 2 de diciembre de 2008 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de evaluación de diagnóstico en los centros educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, prevé que mediante Resolución de la Viceconsejería de Educación se establezca para cada curso escolar el periodo concreto en el que se proceda a la aplicación de las pruebas y la duración de las mismas. Así mismo, la Disposición Final Primera de la mencionada Orden faculta a la Viceconsejería de Educación para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de lo establecido en la misma.

Procede, por lo tanto, dictar instrucciones sobre la realización de las pruebas de evaluación de diagnóstico de las competencias básicas en la Comunidad Autónoma del País Vasco para el curso 2016-2017. A tal efecto,

DISPONGO:

1.- Las competencias básicas que serán evaluadas durante el presente curso escolar 2016-2017 serán las siguientes:

- a) Competencias comunes a todo el alumnado:



- Competencia en comunicación lingüística en euskara.
 - Competencia en comunicación lingüística en castellano.
 - Competencia en comunicación lingüística en inglés.
 - Competencia matemática.
 - Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud.
- b) En esta misma aplicación, una amplia muestra de alumnos y alumnas de cada una de las etapas deberá cumplimentar un cuaderno de expresión escrita en la lengua que le corresponda (euskara, castellano o inglés), con el objetivo de disponer de resultados sobre esta destreza a nivel de Comunidad Autónoma y poder ofrecer modelos a los centros docentes. Esta aplicación de carácter muestral se regirá por lo señalado en el artículo 6.c.
- c) Finalmente, el alumnado deberá responder a un Cuestionario de contexto en el que se incluirán preguntas relacionadas con sus características individuales y sobre el centro, así como cuestiones de carácter lingüístico y otros aspectos de interés para el sistema educativo vasco.
- 2.- El periodo de aplicación de las pruebas será el siguiente:
- a) Alumnado de 4º de Educación Primaria: en el periodo comprendido entre el 6 y el 17 de marzo de 2017.
 - b) Alumnado de 2º de ESO: en el periodo comprendido entre el 20 y el 31 de marzo de 2017.
 - c) Para solucionar situaciones extraordinarias o imprevistas que puedan surgir durante la aplicación, podrán ampliarse en algunos días los periodos de aplicación indicados en los puntos anteriores.
- 3.- El Departamento de Educación mediante concurso público, adjudicará a una empresa externa los trabajos relacionados con la aplicación de las pruebas externas en cada uno de los grupos y centros. El trabajo de la empresa adjudicataria, que será supervisado directamente por el ISEI-IVEI, deberá cumplir estrictamente todos los protocolos y criterios estandarizados definidos para esta evaluación de diagnóstico.
- 4.- Durante el periodo de aplicación, tanto el ISEI-IVEI como la empresa adjudicataria tendrán en funcionamiento un servicio permanente de atención a los centros, con el objetivo de garantizar que todos los problemas que puedan surgir durante este proceso de aplicación sean resueltos con prontitud y de forma eficaz.
- 5.- El personal externo al centro, que intervenga en la aplicación de las pruebas, deberá estar debidamente identificado. Tal y como se señala en el artículo 6.3 de la citada Orden, corresponde al equipo directivo, a través de la Comisión de Coordinación de la evaluación de diagnóstico, facilitar los medios y colaborar en todos aquellos aspectos organizativos que ayuden a garantizar una correcta aplicación de las pruebas.
- 6.- En el desarrollo de la aplicación de esta evaluación de diagnóstico se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:



- a) La aplicación de las pruebas se realizará en dos días lectivos consecutivos en sesiones de mañana. Durante esos dos días, el horario del alumnado participante deberá adaptarse a las necesidades organizativas de esta evaluación. Con carácter excepcional, podrá ampliarse la aplicación a alguna sesión de tarde.
- b) En cada uno de los días de aplicación, el alumnado deberá responder a las pruebas de rendimiento de las competencias señaladas en el artículo 1, con un periodo de descanso entre las diferentes pruebas. Las pruebas correspondientes a la Competencia en comunicación lingüística en cada una de las lenguas oficiales -euskara y castellano- se aplicarán en días distintos.
- c) Una muestra amplia de alumnos y alumnas de cada una de las etapas deberá completar antes del periodo de aplicación externa de la evaluación de diagnóstico la prueba de expresión escrita en una de las lenguas (euskara, castellano o inglés), siguiendo el procedimiento siguiente:
- Los cuadernos de expresión escrita de las tres lenguas se entregarán en todos los centros el día de la visita del aplicador o aplicadora.
 - Los centros cuyo alumnado esté incluido en la muestra controlada de expresión escrita deberán organizar la cumplimentación por el alumnado de la prueba de expresión escrita que le haya correspondido. Esta cumplimentación necesariamente deberá llevarse a cabo antes de los dos días en los que se lleve a cabo la aplicación externa del resto de las pruebas de rendimiento.
 - Al finalizar el primer día de la aplicación externa en el centro, el director o directora del centro o persona en quien delegue deberá entregar al aplicador o aplicadora los cuadernos de expresión escrita cumplimentados por el alumnado de la muestra controlada.
 - Los centros incluidos en esta muestra controlada recibirán comunicación previa de esta circunstancia, así como instrucciones específicas para la aplicación de las pruebas de expresión escrita. Posteriormente, el ISEI-IVEI les enviará un informe específico con los resultados de su alumnado en la prueba de expresión escrita en la que hayan tomado parte.
 - El resto de los centros y grupos, que no estén incluidos en la muestra de control, deberán cumplimentar estas pruebas de expresión escrita siguiendo las instrucciones señaladas en el artículo 10.
- d) Todos los grupos de una misma etapa de cada centro deberán realizar las pruebas al mismo tiempo, en los mismos días y siguiendo el mismo protocolo y criterios de aplicación, a fin de garantizar que todo el alumnado responde a las pruebas en las mismas condiciones.
- e) El alumnado permanecerá con su grupo en el aula de aplicación hasta la finalización del tiempo previsto para cada una de las sesiones de esta evaluación. Correspondrá al equipo directivo o persona en quien delegue velar por el correcto comportamiento de su alumnado durante este proceso de aplicación, así como organizar y cuidar del alumnado en el periodo de descanso señalado entre cada una de las pruebas de rendimiento en ambos días de aplicación.
- f) El equipo directivo, a través de la Comisión de Coordinación definida en el artículo 5.3 de la Orden de 2 de diciembre de 2008, tomará las medidas organizativas adecuadas para garantizar que el alumnado de su centro realice las pruebas en las mejores



condiciones posibles, evitando interrupciones y distracciones que pudieran afectar al rendimiento de los alumnos y alumnas.

g) Cada equipo directivo conocerá con anterioridad, por medio de una comunicación oficial, las fechas en las que se llevará a cabo la aplicación en su centro. En el caso de que, por motivos totalmente justificados, no pudieran realizarse las pruebas en los días propuestos, el director o directora del centro comunicará dicha circunstancia para acordar su posible cambio.

h) El aplicador o aplicadora de las pruebas será el responsable de la custodia de todos los materiales e instrumentos que se utilicen en esta evaluación, así como de garantizar su total confidencialidad, para lo que deberá evitar en todo momento que puedan ser conocidos o manejados por cualquier persona ajena al proceso de aplicación.

i) Durante la realización de las pruebas en cada uno de los grupos, sólo podrán estar dentro de la sala de evaluación la persona encargada de la aplicación y una persona propuesta por el director o directora del centro, con el cometido de ayudar a resolver cualquier anomalía o solucionar los problemas de comportamiento del alumnado. Así mismo, en determinados momentos y en aulas seleccionadas podrá estar presente alguna otra persona con funciones de control sobre el proceso de aplicación (Inspección educativa, ISEI-IVEI o empresa aplicadora).

j) En los casos en que en un grupo se encuentre escolarizada una alumna o alumno con ACI que necesite la ayuda de alguna persona (intérprete o profesor/a de lengua de signos, especialista de apoyo educativo, personal técnico del CRI...) ésta podrá estar presente durante el desarrollo de las pruebas, además del profesor/a que asigne el centro. Esta persona auxiliar estará obligada a firmar un compromiso de confidencialidad acerca del contenido de las pruebas que conozca en el desempeño de su función.

k) El equipo directivo del centro cumplimentará un cuestionario de contexto relacionado con algunas características básicas del centro. Estos datos se utilizarán para la interpretación de los resultados por parte del ISEI-IVEI.

7.- La aplicación de las pruebas correspondientes a las competencias básicas señaladas en el punto 1.a y el cuestionario se realizará mediante ordenador, para lo que se utilizará el equipamiento de Eskola 2.0 disponible en el centro, siguiendo los siguientes criterios:

- a) Durante los días en que se desarrolle la evaluación de diagnóstico, todo el equipamiento Eskola 2.0 disponible en el centro debe ponerse al servicio de las necesidades de esta aplicación, con el objetivo de poder sustituir cualquier equipo de forma inmediata en el caso de que surjan problemas de funcionamiento, mantenimiento o en las baterías durante las sesiones de aplicación.
- b) El alumnado de 4º de Educación Primaria dispondrá para esta aplicación del equipamiento Eskola 2.0 adjudicado a los grupos de 5º y 6º del centro.
- c) El alumnado de 2º de ESO utilizará el equipamiento adjudicado a este nivel a través del programa Eskola 2.0, debiendo estar también disponible durante los días de la aplicación el equipamiento adjudicado a los grupos de 1º de ESO.
- d) A fin de paliar los posibles problemas que puedan surgir durante el desarrollo de la aplicación con las baterías de los ordenadores portátiles Eskola 2.0, el centro



deberá disponer de regletas para la conexión eléctrica de los equipos y puntos de conexión seguros.

- e) El apartado dedicado a la comprensión oral de las pruebas de la Competencia en comunicación lingüística en euskara, castellano e inglés se basa en la escucha de varias audiciones. Por ello, el centro garantizará que todas las alumnas y alumnos dispongan de auriculares personales que se puedan conectar y que se haya comprobado, previamente a la aplicación, que funcionen en los ordenadores portátiles, para su uso los dos días que realicen las pruebas de comprensión oral. El objetivo es que cada alumno o alumna pueda escuchar de forma autónoma y con garantías de higiene las mencionadas audiciones.
- f) Con anterioridad a la aplicación de las pruebas de la evaluación de diagnóstico, el centro revisará el estado del equipamiento de Eskola 2.0. Para ayudar en ese cometido, el ISEI-IVEI establecerá cuáles son las características técnicas y la configuración básica que deberán cumplir los ordenadores, y elaborará un protocolo que contemple la forma de solventar los problemas técnicos que pudieran derivarse de la preparación de dichos ordenadores. Así mismo, se indicarán cuáles son las condiciones que deberán reunir los espacios en los que se realizarán las pruebas. El ISEI-IVEI pondrá a disposición del centro estas instrucciones a través de la web en la que los centros realizan la entrada de datos, en un apartado específico sobre el equipamiento informático. Finalmente, la empresa de mantenimiento “CAU Mantenua” del Departamento de Educación colaborará en la resolución de los problemas técnicos que puedan detectarse durante esa fase de chequeo de los equipos de los centros públicos.
- g) El día de la visita al centro por parte la persona responsable de la aplicación externa, entre otras tareas, revisará todos los equipos informáticos disponibles para la aplicación de las pruebas y comprobará si reúne las condiciones técnicas necesarias.

8.- Con algunos días de antelación a la aplicación de las pruebas, el tutor o tutora de cada uno de los grupos participantes en esta evaluación deberá informar a su alumnado de la finalidad, características e importancia de las pruebas. Así mismo, el ISEI-IVEI enviará a todos los centros las instrucciones generales para la realización de las pruebas, varias semanas antes del periodo de aplicación, y facilitará algún material que permita al alumnado familiarizarse con anterioridad con el formato de las pruebas. No se darán a conocer al alumnado las fechas concretas de la aplicación.

9.- La Inspección de Educación llevará a cabo un control del proceso de aplicación de las pruebas en una muestra de grupos, tanto de 4º de Educación Primaria como de 2º de ESO, para verificar que se respetan todos los criterios estandarizados definidos para esta evaluación. Como resultado de este trabajo, la Inspección de Educación elaborará un informe síntesis, que se trasladará tanto a la Viceconsejería de Educación como al ISEI-IVEI, en el que se recojan los problemas que se hayan detectado en el proceso de aplicación, la valoración general del mismo y las propuestas de mejora que considere pertinentes.

10.- Además de las pruebas aplicadas en el ámbito de la evaluación externa, desarrolladas en los anteriores artículos, todos los centros aplicarán con carácter obligatorio a su alumnado de 4º de Educación Primaria y de 2º de ESO pruebas de expresión escrita en



euskara, en castellano y en inglés, que tendrá un carácter interno y complementario de la evaluación externa, y cuyo fin es completar la evaluación de diagnóstico e implicar al centro en su desarrollo. En este proceso se seguirán los siguientes criterios:

- a) El ISEI-IVEI proporcionará dichas pruebas a los centros, así como las instrucciones precisas que garanticen una aplicación y corrección lo más estandarizada posible. Así mismo, facilitará modelos que ayuden a la corrección e interpretación de los resultados en expresión escrita.
- b) La aplicación de estas pruebas de expresión escrita se realizará con posterioridad a la aplicación externa del resto de las pruebas de la evaluación de diagnóstico, desde la segunda quincena del mes de mayo hasta la primera quincena del mes de junio, y su aplicación y corrección deberá ser realizada por profesorado del centro.
- c) La Comisión de Coordinación de la evaluación de diagnóstico del centro será la responsable de la planificación y coordinación de este proceso, tal y como indica el artículo 5.4 de la Orden de 2 de diciembre de 2008. En este proceso sus funciones específicas serán las siguientes:
 - Fijar las fechas que, de acuerdo a su planificación educativa, considere más adecuadas para la realización de estas pruebas de expresión escrita, dentro del periodo señalado en el punto 10.b.
 - Promover la coordinación de todo el profesorado del centro implicado en esta tarea, distribuyendo las responsabilidades y tareas necesarias para un correcto desarrollo.
 - Recabar, en el caso de que lo considere necesario, la colaboración y asesoramiento del Berritzegune zonal.
 - Analizar los resultados globales del centro y transmitir esta información al profesorado y al resto de la comunidad educativa.
 - Promover, en el caso que sea necesario, medidas de mejora de la expresión escrita en su Plan de intervención para la mejora.
- d) La Inspección de educación supervisará el cumplimiento de estas tareas y la realización de esta parte de la evaluación de diagnóstico.

11.- La expresión oral también forma parte de la competencia en comunicación lingüística en las tres lenguas objeto de enseñanza-aprendizaje. Sin embargo, debido a la complejidad de su aplicación y a las exigencias económicas que supone su desarrollo con aplicadores externos al centro, su aplicación quedará, con carácter voluntario, en manos de los centros docentes. Los criterios de aplicación serán los siguientes:

- a) El ISEI-IVEI, junto con el Berritzegune Nagusia, proporcionó en su momento un conjunto de modelos de pruebas de expresión oral para cada lengua y cada etapa, junto con los protocolos e instrucciones de aplicación, los criterios e instrumentos de corrección y orientaciones generales para el trabajo de la expresión oral en el centro.
- b) La aplicación de estas pruebas será voluntaria y la llevarán a cabo los centros que estén interesados en evaluar esta dimensión de la competencia en comunicación lingüística en euskara, castellano e inglés.
- c) Los centros interesados que no dispongan todavía de este material, deberán solicitarlo a su Berritzegune zonal, así como su colaboración y asesoramiento en el desarrollo de este proceso.

12.- Una vez corregidas las pruebas externas y realizados los análisis necesarios por parte del ISEI-IVEI, se trasladará a los equipos directivos un Informe de centro, así como un Informe para la familia de cada uno de los alumnos y alumnas que hayan tomado parte en



esta evaluación. El informe individual contendrá información acerca del rendimiento en Comunicación lingüística en euskara, en castellano y en inglés, así como en Competencia Matemática y en Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud. En el envío de estos Informes, que deberá llevarse a cabo en el primer trimestre del próximo curso, han de tomarse en consideración tanto la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de datos de carácter personal, como todas las garantías señaladas en el artículo 7 de la Orden de 2 de diciembre de 2008, relativa al acceso, uso y tratamiento de la información. En todo caso, el ISEI-IVEI enviará a todos los centros un informe provisional con el avance de los resultados principales a finales de este mismo curso escolar.

13.- El equipo directivo, tal y como señala el artículo 8.2 de la Orden de 2 de diciembre de 2008, deberá gestionar la entrega de resultados individuales a cada familia.

14.- Con los resultados recibidos, cada centro escolar deberá continuar con su proceso de mejora, tal y como se indica en el artículo 8 de la citada Orden de 2 de diciembre de 2008. En este proceso de mejora, además de los resultados obtenidos en la evaluación de 2015, se deberán tener en cuenta los logrados en las anteriores evaluaciones de diagnóstico, así como las propuestas de actuación definidas y acordadas en los anteriores planes de mejora de centro y los objetivos de mejora establecidos con carácter general por el Departamento de Educación.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2016

Viceconsejera de Educación
Arantza Aurrekoetxea Bilbao